

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Añorga 2-Gipuzkoako Foru Aldundia 0

Juan Mari Zurutuza • DONOSTIA

Duela urtebete, Añorgan manifestazioak egiten hasi ginen, gure auzoan zebra bideak eta semaforoak jar ditzaten. Hasiera-hasieratik Foru Aldundiak izan duen jarrera lotsagarria izan da. Lehenik eta behin, ertzainak bidali zituen gu izutzeko asmoz, baina ez zuen gauza handirik lortu, protestek bere hartan segitu baitzuten. Gero beste bide bati heldu zion, eta auzitara jo zuen, manifestazioak debekatu nahian; baina ez zuen aurpegia emateko adorerik izan, eta, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Saila ordezkari gisa erabiliz, helegitea aurkeztu zuen, inolako zen-

tzurik ez duen txostenen bat oinarritzat harturik.

Epaitegiak arrazoia eman zigun auzoko lagunei. Azken bi hilabete hauetan, manifestazioa debekatu ezin zuten heinean, eguna eta ordua aldatzen saiatu ziren, berriro ere bide bera erabiliz, hau da, epaitegia, helegitea eta Herri-zaingo Saila. Eta bigarren aldiz, Auzitegi Gorenak arrazoia eman digu. Azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako abokatuek ere gure xedea legezkoa, zentzuzkoa eta bidezkoa dela aitortu dute. Epaitegiaren erabakiari dagokion aktan argi eta garbi ikus daiteke. Beraz, argi dago Foru Aldundiaren arrazoi bakarra burugogorkeria dela.

Ezin du zentzuzko arrazoirik aurkeztu zebra bideak eta semaforoak ez jar-

tzeko. Gure ordezkariak diren heinean, euren portaera lotsagarria da. Sudupe jauna, zuk zeuk zerbait egin beharko zenuke, zure menpekoek ageri duten jarrera ez baitagokio herritarren alde egin behar duen erakunde bati. Bukatzeko, jakin ezazue manifestazioak ez direla amaituko.

Amnistiaren alde lanean


Idoia Ibero (Amnistiaren aldeko mugimenduko kidea)

Ikusi berri dut zuen argazkia prentsan. Oroimenak pilatu egiten zaizkit buruan, onak zein txarrak. Urte luzeetako historia da gurea, eta oraindik ere gerra dezente emango duena. Ezin esan

harriduraz harrapatu nauenik; hala ere, haserre eta amorrua sortu dit. Urte batzuk pasatu dira, baina egindakoa buruan fresko daukat: kartzeletarako bidaien antolaketa, festetako txosnak, presoen ongietorriak, eraildakoen omenaldiak, irratsaioak, prentsaurrekoen prestaketa, Herrerarako martxa ahaztezinak eta abar. Zerrendan motz geldituko naizela badakit.

Oraindik ere duela urte batzuk mugiarazten gintuzten zio guztiek badi-raute, eta, horrexegatik, horretan jarraituko dugu; bakoitzak berean, bakoitzak ahal duen neurrian; baina beti, Amnistiaren alde lanean, Euskal Herriko auzo eta herri guztietan. Muxu goxo bana Baltasar Garzonen operazioan kartzelaturiko lagun guztioi.

montxo



galdeiozu... ?



KOLDO MARTINEZ

Nafarroako Ospitaleko Bioetika Batzordeko kidea

Zenbateraino esperimentatzen da animaliekin Euskal Herrian? Non dira mugak? Ez al dago beste biderik?

Edurne Laskibar (Eibar)

Ez dakit zenbateraino, baina Euskal Herrian egiten diren esperimentazioetan animaliak erabiltzen dira. Praktika horrendako mugak jartzea beharrezkoa da. Orain guti arte, animaliak ia inolako kontrolik gabe erabili dira, behe espezie batekotzat, giza espeziea baino garrantzi eta balio guttiagokotzat zeukatelako. Ideologia horri *espeziekeria* deitzen zaio. Egun argi dago animaliek ere beren balioa eta zeregina dutela. Batzuek eskubideak ere badituztela aldarrikatzen dute. Eta badira haur jaioberriek edo eri mentalek baino eskubide gehiago dutela aitortzen dutenak. Mugak non jarri behar diren ez dakit, beharrezkoak direla bai, eta denon artean ahalik eta era demokratikoenaren bidez egin behar dela ere bai. Erantzukizuna guztiona baita.

hirusta



Xabier Gantzarain

Museoen funtzioaz

Artearen funtzioaz izeneko zutabe eder bat idatzi zuen Juan Luis Zabalak otsailaren 2ko *Begia*-n, Guggenheim Bilbao Museorekin jarduerak 2001ean Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian izandako eragina zehatz-mehatz aztertzen duen txostena hizpide hartuta. Horixe baita Guggenheim Bilbao Museoa, dirua egiteko makina. Eta gutxi axola zaio erakusten duena artea den, edo zer-nolako artea den.

Bada, ordea, hori baino kontu kezagarriagorik museoen inguruan. Bizirik dagoen edozein gauza harrapatu, akabatu, disekatu eta museo bat eraikitzen da piztia erakusteko gaur. Edozein gai izan daiteke ona museo txukun bat eraikitzeko: abertzaletasuna, pilota, antzinako lan tresnak... hildakoa ongi jantzi eta apain-apain era-

kustea da kontua. Eta gizarte honetan hildako mugimendu eta ekimenak gero eta gehiago direnez, museoak ere halaxe ugarituko dira. Esango dute kultura handiko herria garela eta horregatik ditugula hainbeste museo. Ez dute esango gaur egungo sortzaileen lanari gero eta gutxiago erreparatzen zaiolako bete behar dela hutsune hori ongi apaindutako museoz.

Eta egunen batean, jada hasiak gara parke tematikoaren egiten, euskaldunok ere edukiko dugu geure museoa. Europako hizkuntzarik zaharrena zela esaten zen hizkuntza arraro batean hitz egiten zuten eta astapetro samarrak ziren, baina oso jatorrak, hitzekoak, langileak, zintzoak. Halako burezurra eta halako Rh-a. Euskaldunak, hura bai herria, haiek bai gizon-emakumeak. Merezi zuten museo hau.